

PAISAIA ETA ONDAREA AZTERTZEKO EUSKARAZKO AZPIEGITURA BATEN BEHARRAZ

Sergio Escribano Ruiz, Agustin Azkarate Garai-Olaun





Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
Geografia, Historiaurrea eta Arkeologia saila
GPAC. Ondare eta paisaia kulturalen berrikuntzarako gune esperimentalak
UNESCO Kultura Paisaiak eta Ondarea Katedra

HELBURUAK

Gure ekarpen xume honen helburua egun paisaia historikoak eta ondarea aztertzeke erabilgarriak diren euskarazko baliabideen oinarritzko katalogo bat osatzea da. Bildu ditugun baliabideak gure esperientziatik eratorriak dira, bai ikerketa zein irakaskuntza arloetan erabiltzaile izan garen heinean. Jarraian, baliabide hauek lau arlo ezberdinetan antolatu ditugu.


EKOIZPEN ZIENTIFIKOA

- Ez dago nahikoa tradiziozko
- Azken hamarkadetan egoerak ez du hobera egin (alderatu Agirre 2005 eta Belaustegi, Escribano-Ruiz 2022)
- Erakundeen argitalpen elebidunak daude (Eusko Jaurlaritza, Aldundiak, udalak), baina liburu zein artikulu formatuko ekarpenak oso urriak dira (UEU, EHU)




DATU BASE ETA BALIABIDE DIGITALAK

- Eusko Jaurlaritzaren ekimenaren ondorioz baliabide ezberdinak sortu dira:
 - ✓ Ondarea aztertzeke (*Ondarea*)
 - ✓ Indusketen emaitzen kontsultarako (*Arkeikuska*)
 - ✓ Espazioaren ikerketa bideratzeko (*geoEuskadi bisorea*)



HIZTEGIAK

- Ondareari dagokion bat propio egon ez arren, hurbileko arloetakoak daude erabilgarri, Terminologia batzordeak onartuak, eta Eusko Jaurlaritzaren webgunean eskuragarri (zeramika, ingumena, metalurgia, mineralak).
- UZEIren ekimenari esker Arkeologia edo Arkitektura hiztegiak ere ditugu erabilgarri, besteak beste.



ESKULIBURUAK

- Itzulpen bakanen bat bada, Arkeologia arloan (EHU)
- Testu liburuak eta ikasmateriala sortzeko ekimenak izan dira, baina ondareari zuzendurik ez

ONDORIOAK

Egun ikasle euskaldunek ondarea aztertzeke baliabide batzuk eskura dituzten arren, hauek nagusiki erakunde ezberdinen eskumenari zor zaizkie. Hizkuntza politikek eta eragile ezberdinen ekimenek, hala ere, nagusiki gaztelaniaz eta ingelesez idazten diren zientzia lanekin aurrez aurre topo egiten dute. Hau akademiaren euskal hiztunen komunitatea handitzen dioan bitartean gertatzen ari da eta hausnarketa sakon bat egiteko gonbit ekidinezina da.

BIBLIOGRAFIA

- AGIRRE, Jaione (2005): Historiaurrearen, Antzinaroaren eta Erdi Aroaren historia euskaraz. Historia ala fikzioa?, *Vasconia. Cuadernos de Historia-Geografia* 34, 185-208 orr.
- BELAUSTEGI, Unai; ESCRIBANO-RUIZ, Sergio (2022): Euskararen egoera akademian (2001-2021): Historialari euskaldunen topaketan harira egindako gogoeta, *Kondaira* 19, 1-6 orr.